

BULTZI-LEIOTIK¹

Oi, lur, oi, lur!
Oi, ene lur nereal!...
Oi, goiz eme,
parre gozoz ernea!...

Arto musker²,
mendi, baserri zaarrak;
ale gorritz
abailduta sagarrak³:

oro laño
mee batek estalia,
urrez oro
eguzkiak yantzia...

Nekazari,
gizandi⁴ bat iduri
soroan zut⁵:
beiondeizula zuri!...

¹ Treneko leihotik. *Bultziko leiotik* (1929). ² Berde; muskerraren kolorea, beraz. ³ Fruituen pisuaz lurrerantz makurtutako, okertutako sagarrondoak.
⁴ Gizon handi, erraldoi, ⁵ Tente, zuzen.

Zure bazter⁶
gurazko⁷ aberria,
doa zoro
(ta bertan⁸ ni) bultzia...

Oi, ene lur,
baninduzu zerea,
zu landu, ta
zure sariz aseal!...

Bañan... ezin:
beeko bear gorriak⁹
narama... Agur,
soro, sagar, mendiak!...

1929-dagonilla

⁶ Zure bazterretik, ertzetik. ⁷ Desirazko. ⁸ Barruan. ⁹ Beeko ... gorriak: behe aldeko (gizarte arazoz irakiten dagoen hiri, kale giroko, ez mendi inguruko) betebehar, eginbehar estuak, premiazkoak; *beeko bizitz gorriak* (1929).